

«Gizonezkoei begira eginak daude gizarte zerbitzuak»

Pablo Ruiz • Bizitegiko zuzendaria

Bazterketa egoeran diren emakumeak sistemarentzat «ikusezinak» direla uste du Bizitegi elkarteak zuzendari teknikoak. Genero ikuspegia txertatu behar dela uste du.

Ion Orzaiz

Baztertuta edo bazterketa arriskuan bizi diren pertsonak gizarteratzeko lan egiten du Bizitegi elkarteak. Oraingoan, zehazki, etxebizitza arazoak dituzten emakumeen egoera ikerketagai izan dute *Emakumeak eta bizitoki bazterketa* izeneko txostenean. Pablo Ruizek, Bizitegiko zuzendari teknikoak (Bilbo, 1969), ikerlana aurkeztu zuen atzo, Deustuko Unibertsitatean.

Bizitoki bazterketa aipatzen du zue txostenean. Zer da?

Definizio hori egiteko, *Ethos* izeneko tipologian oinarritu gara: Europako Etxegabe eta Bizitoki Bazterketaren Tipologia. Horren arabera, lau kategoriatan sailka ditzakegu etxebizitzarekin lotutako bazterketa egoerak: bat, aterperik gabe, kalean bizi direnak; bi, etxebizitzarik eduki ez, eta aterpetxe, harrera gune, migrazioaileentzako zentro edo espetxe batean bizi direnak; hiru, segurtasunik gabeko etxebizitza batean bizi direnak –kaleratze agindua jaso dutenak, kontraturik ez dutenak, behin-behinean

senide nahiz lagunaren etxean bizi direnak...»; eta lau, bizitoki desegoki bat dutenak, besteak beste, txabolak, etxebizitza masifikatuak edota gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak. Lau kategorio horietan bizi diren emakumeen kasuak ikertu ditugu.

Eta zeintzuk dira ondorioak?

Genero marka handia dago. Muturreko kategorietan, adibidez, emakumezko gutxiago antzeman ditugu. Oso gutxi dira, esate baterako, kale gorrian edo aterpeetan bizitzea beste aukerarik ez dutenak; etxebizitza prekarioetan, segurtasunik gabekoetan edo desegokietan bizi direnak, berriz, askoz gehiago.

Zergatik?

Bi arrazoiz daude. Batetik, kalean bizitzea askoz arriskutsuagoa da emakumeentzat gizonezkoentzat baino. Egoera kalteberagoan dauden emakumeak: tratu txarren, sexu erasoen eta beste indarkeria mota askoren biktima izan daitezke; beraz, andre askok edozein aukerari heltzen diote kalean gelditu baino lehen: prostituzioari, kontraturik gabeko lan prekarioei... Kale gorrian gelditzen diren



LUIS JAUREGIALTZO / FOKU

emakumeak izan ohi dira muturreko pobrezian eta egoera makurreretan direnak. Hondoa jo dutenak. Hortaz, gutxiago dira kalean bizi diren emakumeak, baina okerrago daude. Bigarren arrazoiak ikusezintasuna da: bada emakume multzo handi bat estatistika eta ikerlanetatik kanpo geratu ohi dena. Etxebizitza propiorik eta diru sarrerarik ez duten andrazkoak dira, eta menpekotasun erabatekoan bizi dira; hortaz, denetarik jasaten dute kalean ezgorditzeko: sexu abusuek, tratu txarrak, umiliazioak... Kasu horietan, biktimek ez dute gizarte zerbitzuetara jotzen, eta ezin gara haiengana iritsi. Datu eta txosten ofizialetatik kanpo gelditzen dira, eta ez dira zenbatzen.

Gizarte zerbitzuak gaizki diseinatuak dauden seinale?

Ettxerik gabeko pertsonak artatzeko baliabide eta zerbitzu publikoak, oro har, gizonentzat diseinatuak daude. Horrek ez du esan nahi zerbitzuok andrazkoek laguntza ematen ez dietenik, baina emakumezkoek zerbitzura moldatu behar dute. Eta alderantziz izan beharko luke.

Zer modutan egon beharko lukete egokituak?

Historikoki, gizonezkoek galdegin dituzten laguntzak eta baliabideak materialak izan dira: aterpea, jan-edana eta jantzia. Eta hori bermatzera mugatzen dira gizarte zerbitzuak. Baina ez da nahikoa.

Ez?

Ez. Hori nahikoa balitz, jendeak ez luke bere buruaz beste egingo, adibidez. Gure ikerketan, esaterako, argi gelditzen da emakume

gehienek bestelako beharrak ere badituztela: intimitatea, espazio propioa, erasoen aurkako babesa, segurtasuna... Hori guztia eskatzen dute, baina gizarte zerbitzuek ez diete erantzunik ematen. Ez daude behar bezala prestatuta. Horren ondorioetako bat da emakume askok ez dituztela zerbitzu eta baliabide publikoak erabiltzen, ez direlako seguru sentitzen. **Zer aldatu beharko litzateke?** Bi motatako neurriak har daitezke: batetik, egiturazkoak edo epe luzeak; eta bestetik, unean unekoak edo epe laburrekoak. Egiturazko irtenbideak hartzea,

«Andre askok edozein aukerari heltzen diote kalean gelditu baino lehen: prostituzioari, kontratu gabeko lanei...»

«Emakume askok ez dituzte zerbitzu eta baliabide publikoak erabiltzen, ez direlako seguru sentitzen»

dena den, ez dagokio administrazioari soilik, gizarte osoari baiziki. Kultura aldatu behar dugu, eta, horretarako, bide bakarra dago: feminismoa. Gizakion arteko harremanak ezin dira egon indartsuenaren legearen, konpetentziaren eta garaipen gosearen menpe. Egungo gizarte balio horien arabera eraikia dago, eta kultura aldatzea beste biderik ez dago, gizarte zerbitzuak eta baliabideak ere moldatzen hasteko.

Gizartea aldatzen ez den bitartean, ordea, zer proposatzen duzue etxebabeentzako zerbitzuak hobetzeko?

Unean uneko neurri asko har daitezke, gizarte zerbitzuetan genero ikuspegia ezartzeko. Esate baterako: etxerik ez duten emakume askok sexu erasoak edo abusuak jasan dituzte; hortaz, hainbat zerbitzu edo baliabide gizonezkoekin partekatu behar izatea oztopo gaindiezina bihurtu daitezke haien zat. Beldurra sentitzen dute gehienek, eta logikoa da. Bada, hori aintzat hartu beharko lukete etxebabeentzako aterpe nahiz zerbitzuetan. Dena den, horrekin ez dut esan nahi emakumezkoak bereizi egin behar direnik, horrek estigmatizazioa garamatzalako. Nire ustez, irtenbide egokiena izan daitezke zerbitzu eta baliabide komunak eskaintzea, eta horien barruan, emakumeentzako espazio eta talde seguruak sortzea. Bazterketa egoeran dauden andrazkoen konfiantza, segurtasuna eta ahalduztea bermatuko luke horrek.

berriaguna

LAMIAK

ile-apaindegia

Euskadi etorbidea, 15 • 20560 OÑATI • Gipuzkoa
Tel.: 943-78 20 50 facebook.com/ileapaindegia.lamiak

EUSKO JELA
BANAKETA EH OSOAN
Euskal Herriko izotza
610 79 47 17